

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Enpresa gehienentzako, handitasuna eta internazionaltasuna lortzea da gure helburua. Enpresa txikia gara, eta ondorioz merkatu horretara egokitzea da gure eginkizuna. Hasieran lokalki jardungo dugu, gure herrian eta kapital hirian (Donostian) harreman pertsonal eta zuzen bat eskainiz.

Gainera, monopolio bat gara oraindik, antzeko enpresarik ez dagoelako. Zure ADNaren analizatu behar du zure arbasoen eta zure sustraiei jatorria jakiteko; eta gainera, gehiago ordainduz gero, bidai ahaztezin eta paregabe bat edukitzeko aukera ematen dizugu. Horregatik eta arrazoi gehiagorengatik, monopolio bezala mantentzea da gure helburuetariko bat. Beste enpresen gaitasun nabarmendu nahi gara, gure bezeroei esperientzia berezi eta bakar bat eskaintzeko; pertsonalki haien beharretara egokituz eta hauek asetz.

Horretarako baliabide ezberdinen beharra dugu. Batetik ADN dugu. Hau da, negozio edota enpresa honen adar nagusia. Gai honetan adituak izan behar gara. Horretarako, ADN analisi enpresa eta laborategiekin harremanean egon behar gara. Baina gure enpresa ez da laborategi bat, bidaiari ematen diogu garrantzi handiagoa. Guk antolatuko dugu zure bidaiak, zure eskakizunei kaso eginez eta zure beharrak asetz, lehen esan bezala. Gure laborategi propioak ez edukitzea erabaki dugu, laborategi profesional batekin harremanean egotea baizik. Horregatik, etorkizuneko bezero posible horiek gure enpresa aukeratzea bada gure nahi nagusia, adituak izan behar gara ADN analisian. ADN analisi horiek paregabeak eta oso zehatzak izango dira (izan behar dute). Bezero batek ADN analisi bat ordainduko duenean, efikantzia eta horren kostua da baloratuko duena. Baita ere prozesu honen azkartasuna. Horregatik, lehen esan bezala, bezeroen eskakizunetara egokitzeko, ADN analisia azkarra eta oso zehatza izango da.

Beste alde batetik, alokatu dezakezun bidaiak dugu. Esan beharra dago, bi aukera daudela gure enpresan. Zure ADNaren analisia eskatu dezakezu soilik eta bestetik, esperientzia handiago eta osoago bat nahi baduzu, guk antolatzen dugun bidaiak alokatu dezakezu. Zertan datza bidaiak hau? Zure ADN analisien emaitzen berri edukitzean, bidaiak antolatzea da gure helburua. Gure enpresak, zure arbasoen herrialdeetatik egonaldi eta esperientzia ezberdinak bizitzeko aukera aparta eskainiko dizugu. Demagun, zure analisien erantzunetan Japon %10, Finlandia %40, Mexiko %30 eta Espainia %20 emaitzak agertu direla. Ikusi daitezkeen bezala, herrialde bakoitzaren atzetik ehuneko bat agertuko da. Herrialde horietatik zure bidaiak antolatuko dugu. Eta ehuneko horren arabera herrialde bakoitzean zure egonaldiaren iraupena erabakiko dugu. Gainera aukera ezberdinak daude hemen

ere. Herrialde eta kontinente guztietatik bidaiatzeko aukera ematen dizugu baina helmuga bakar bat soilik aukera dezakezu. Nahi duzunaren arabera diseinatuko dugu bidaia. Hau guztia ondo planifikatzeko eta ondo ateratzeko turismoan adituak direnen beharra dugu. Gainera hainbat hizkuntza menperatzen dituzten langileak beharko ditugu. Komunikazioan adituak ere, gure enpresa internazionala izateko bidean edukitzeko, promozionatzeko eta geroz eta ezagunagoa egiteko. Azkenean, enpresa guztien aldera, erakutsiko duguna da garrantzitsuena, kanpotik ikusten dena. Gure kanpoko fatxada eta erreputazioa mantentzea da egokiena ere. Ez da garrantzitsuena, baina bai garrantzia duen zerbait. Hau guztia jakinda, hizkuntza ezberdinak menperatzearen beharra azpimarratuko dugu berriro. Gaztelaniaz aparte, euskara ere nahi dugu, Euskal Herriko bezeroen esperientzia paregabea ziurtatzeko. Baita Ingelesa izango da derrigorrezkoa. Geroz eta hizkuntza gehiago menperatzen badituzu, geroz eta puntu eta prestigio gehiago izango duzu: Alemana, Frantsesa, Txinatarra...

Jartzen ditugun baldintza guzti hauek jendearengan inpaktua lortzeko da, eragina lortzea da gure helburua.

Negozio eredua eta haren funtzionamendua aurkeztu eta gero, baliabide fisikoen beharra dugu. Lehen esan bezala, lokalki hastea da gure plana. Bulego pare bat irekiko ditugu Gipuzkoan. Bat gure herrialdean (Lasarte-Orian) eta beste bat hiriburuan, Donostian. Gure salmentak, diru-sarrerak eta ospea goruntz badoa, Bilbora zabalduko gara, geroago Madrilera edota Bartzelonara mugitzeko. Hau, bezeroen eskakizunen araberrako gauza izango da, argi dago. Baina seguru dagoena, gure web orria izango dugula da. Interneten bidez egiten dira bilaketa gehienak, Interneten ez baduzu arrastorik, ez zara existitzen. Gainera, han hasten dira bezeroen bilaketak, gure eskaintza eta haren baldintzak ezagutzeko eta gurekin harremanean jartzeko. Gainera han ikusiko dute bulegoren bat badagoen gertu; eta hori izango da azkeneko pausua. Nahi badute, bulegora gerturatzeko aukera izango dute harreman pertsonalago bat izateko.

Horregatik web orri fidagarri eta on bat izateko, segurtasuna behar dugu. Posibilitatea dago, bezeroak interneten bidez egitea bere erosketa. Ondorioz, datuak ondo gorde behar ditugu, gure bezeroen konfiantza mantentzeko.

Hemen irakurritakoa gure negozioaren azalpena da, baina negozio hau posible izateko, finantza baliabideak behar ditugu. Hasteko, 50.000€ jartzea erabaki dugu. Web orri profesional eta seguru bat izateko. Baita gure lehenengo lokala irekitzeko eta langile bat edukitzeko. Hasieran, seguruenik, ez dugula onurarik ikusiko. Baina denborarekin eta handitzen doan einen negozioa, kapital gehiago edukiko dugu, horrela gehiago inbertitu ahal izateko. Gainera beste enprekin akordioak erabaki ditzazkegu negozioa finantzatzeko. Bukatzeko, ospea nola lortu

entsatu dugu. Gaur egun ospea behar da profesionalki handitzen joateko eta errespetua lortzeko. Azkenean, lehen esan dugun bezala, jendeak kanpotik ikusten duena da garrantzitsua baita ere. Horregatik, famatuekin edota "influencer"ekin kolaboratzeko aukera dugu buruan, interneten baita ere eragina lortzeko.